## josé manuel bielsa
ARKITEKTURAK - DONOSTIA

## Jose Javier Pi Chevrot
1813KO HONDAMENDI AURREKO
DONOSTIA GOGORATUAZ
*RECORDANDO LA DONOSTIA ANTERIOR*
*AL DESASTRE DE 1813*

FONDO FOTOGRÁFICO
## Rafael Munoa Roiz
ARGAZKI FUNTSA. KUTXATEKA
HIRIBURU BATEN ERAIKUNTZA
*CONSTRUCCIÓN DE UNA CAPITAL*

KUTXA BOULEVARD ARETOAK
SALAS KUTXA BOULEVARD

Boulevard, 1 - Donostia / San Sebastián

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN
SALAS 0, 1, -1 ARETOAK

2013ko abuztuaren 30etik urriaren 13ra
Del 30 de agosto al 13 de octubre de 2013

Asteartetik igandera / De martes a domingo
11:30-13:30 / 17:00-21:00

SARRERA DOAN / ENTRADA LIBRE

DONOSTIA 2016 SAN SEBASTIAN

STM San Telmo Museoa

donostiakultura.com

kutxabank

Boulevard
kutxa obra social


## josé manuel bielsa
ARKITEKTURAK - DONOSTIA

## Jose Javier Pi Chevrot
1813KO HONDAMENDI AURREKO
DONOSTIA GOGORATUAZ
*RECORDANDO LA DONOSTIA ANTERIOR*
*AL DESASTRE DE 1813*

FONDO FOTOGRÁFICO
## Rafael Munoa Roiz
ARGAZKI FUNTSA. KUTXATEKA
HIRIBURU BATEN ERAIKUNTZA
*CONSTRUCCIÓN DE UNA CAPITAL*


Boulevard
kutxa gizarte ekintza



## José Manuel Bielsa

José Manuel Bielsaren argazkien bitartez, Donostiako arkitekturarik onena eta bereziena ikusiko dugu, eta haren historia gogorarazi; bizitzak, denborak eta kulturak bat egingo dute, nazioartean sona handiko hiria erakusteko.

José Manuel Bielsak eraikinen ikuspegi indibiduala egin digu, beren esentzia nabarmenduta, ezkutuko txokoak agerian ipinita eta bazterrik ezezagunenak ere erakusten ahaleginduta. Hala, bere irudi-multzoak gure hiriaren arima jaso dute.

A través de las fotografías de José Manuel Bielsa podemos ver la mejor y más singular arquitectura de Donostia, y evocar su historia, una confluencia de vida, tiempo y cultura para mostrarnos una ciudad internacionalmente reconocida.

José Manuel ha realizado una visión individual de los edificios, realzando su esencia, desentrañando sus recovecos, intentando mostrar los ángulos más desconocidos pero el resultado de sus imágenes han conformado un conjunto que muestra el alma de esta ciudad.

SALA 1 ARETOA



**Jose Javier Pi Chevrot.** Aireko ikuspegi orokorra / Vista aerea general

1813-2013 berrehungarren urteurrenaren harira, 1813ko hondamendi aurreko DONOSTIA zenaren memoria historikoa berreskuratu nahi dugu eta, horretarako, hirigintza eta monumentu arloak birsortuko ditugu, orduko paisaia irudikatuta. Erakusketa honen xedea donostiarrei zein kanpokoei XIX. mende hasierako hiriaren ahalik eta irudi erreal eta argiena aurkeztea da.

Erakusketaren funtsa 3D bektore-maketa birtual bat da. Oinarrian udalerriko azken 3Dko plano topografikoa dago eta gaur egun arte iraun duten monumentuak erabili dira erreferentzia gisa. Gainera, iraganeko ezaugarrien gaineko datuak ematen dizkiguten plano historikoak txertatu dira, hurrenez hurreneko hainbat hurbilketa eginez eta hiriak jasan dituen eraispen, inausketa eta betelanak ezabatuz, harik eta emaitza egokiena lortu arte.

Ez da gure asmoa izan hiriaren orduko itxura zehatz-mehatz birsortzea, arkitekturaren historiarekin koherentea den irudikapen egiantzekoa baino ez. Badira hiriko hainbat elementu orduan bezala daudenak, bere horretan irudikatu ditugunak; beste batzuk itxuraldatu egin dira eta zehaztasun gehiagoz edo gutxiagoz lehengoratu daitezke; gehienak desagertu egin dira eta aztarnak, halakorik dagoenean, hondakin arkeologikoetan, margoetan, grabatuetan edota kartografia zaharretan topatu dira. Azken horiei dagokienez, emandako konponbidea hipotesien araberakoa izan arren, atxikitako dokumentazio historikoan eta/edo ezaugarri geografiko edo historiko analogoko arkitektura elementuetan oinarrituta dago.

Agiri grafikoak: Jose Maria Unsain Azpiroz.

Con ocasión del bicentenario 1813-2013 queremos rescatar la memoria histórica de lo que fue DONOSTIA-SAN SEBASTIAN antes del desastre de 1813, por medio de su reconstitución urbanística y monumental, en el marco paisajístico de la época. La finalidad de esta exposición es presentar a los donostiarras y al público en general una imagen de la ciudad en los albores del siglo XIX lo más real y clara posible.

La muestra se articula alrededor de una maqueta 3D vectorial virtual. Se ha partido del último plano topográfico 3D municipal, y gracias a las referencias de los monumentos que han permanecido, se han insertado los planos históricos que nos aportan los datos de la realidad pasada mediante aproximaciones sucesivas y eliminando los derribos, desmontes y rellenos que ha padecido la ciudad, hasta conseguir la solución más satisfactoria.

No pretendemos haber alcanzado la verdad exacta de lo que fue la ciudad, sino una realidad plausible, coherente con la historia de la arquitectura. Hay elementos de la ciudad que han sobrevivido y su reproducción es inmediata; otros han sido transformados y se pueden recomponer con mayor o menor precisión; los más han desaparecido y si han dejado huellas ha sido en restos arqueológicos, cuadros, grabados o cartografías antiguas. La solución adoptada en la reconstitución de estos últimos no deja de ser hipotética; pero está justificada a partir de la documentación histórica aportada y/o con elementos arquitectónicos de características geográficas o históricas análogas.

Documentación gráfica: Jose Maria Unsain Azpiroz.

SALA 0 ARETOA



**FONDO FOTOGRÁFICO Rafael Munoa Roiz ARGAZKI FUNTSA. KUTXATEKA.**

Rafael Munoa Roiz (Donostia 1930-2010) gerraondoko Donostian hazi zen.

Optikaria, bitxigilea, marrazkilaria, donostiarra, antikuarioa, margogilea, solidarioa, zilargintzan aditua, bildumazalea, umorista… Artista polifazetikoa izan zen, kulturaren adierazpen guzti-guztiak maitatu zituena.

Bere haurtzaroa eta nerabezaroa erabakigarriak dira oso bizitzan egingo zuen ibilbidea ulertzeko. Baita bildumazaletasunarekiko oro har eta argazkilaritzarekiko bereziki garatu zuen pasioa ulertzeko ere; argazkilaritzara, adibidez, aitaren bideari jarraituz zaletu baitzen.

Urteen poderioz argazki-bilduma oparoa metatu zuen: Hermenegildo Otero, Valentín Marín, Rogelio Gordon artistenak, besteak beste. Halaber, nazioartean ospe handian zuten Neurdein anaien edo De Jhong suitzarren lanak ere bildu zituen.

Donostia izugarri maitea zuen, eta, hiriarekin agertu zuen interesari esker, XIX. mendean harresia bota ostean Donostiak izandako garapen urbanistikoa dokumentatuta geratu da.

Donostiako Udalak Hiritar Merezimenduaren Domina eman zion 2005. urtean.

Rafael Munoa Roiz (Donostia 1930-2010) se crió en un San Sebastián de postguerra.

Óptico, joyero, dibujante, donostiarra, anticuario, pintor, solidario, especialista en platería, coleccionista, humorista... Fue un artista polifacético y amante de la cultura en todas sus expresiones.

Su infancia y adolescencia son decisivas a la hora de explicar su trayectoria vital. También en lo que respecta a su afición por el coleccionismo en general y por la fotografía en particular, afición en la que le inició su padre.

A lo largo de los años atesoró una colección fotográfica en la que se pueden encontrar obras de Hermenegildo Otero, Valentín Marín, Rogelio Gordón y otros fotógrafos de renombre Internacional como los hermanos Neurdein o los suizos De Jhong.

Gracias a su interés por todo lo referente a esta ciudad que él tanto amaba, ha quedado documentado el desarrollo urbanístico de San Sebastián en el siglo XIX tras el derribo de la muralla.

En 2005 la ciudad de San Sebastián le otorgó la Medalla al Mérito Ciudadano.

SALA -1 ARETOA

Kutxateka
kutxa gizarte ekintza